

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2019 Foru Dekretua, otsailaren 12koa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundeak 2019rako antolatutako udako jardueretan izena emateko kuoten prezio publikoari buruzko arautegia

Tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak (ALHAOren 78 zenbakia, 2018ko uztailaren 6koa) 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretuak, Gazteriaren Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu erregelamendua aldatzen duenak, 15. artikuluan arautzen ditu Gazteriaren Foru Erakundearen finantza baliabideak, eta ezartzen du bere helburuak betetzeko baliatuko dituela ematen dituen zerbitzuak erabiltzeagatik erabiltzaileek ordainduko dituzten kuotak, tasak eta prezio publikoak.

Horrela, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak foru erakundeak antolatutako udako jardueretan izena emateko kuoten prezio publikoen araudia onartzea proposatu zuen 2019ko urtarrilaren 23an.

Gazteriaren Foru Erakundeko Idazkaritza Teknikoak emandako txostenari atxiki zaio.

Kontuhartzaitzaren aldeko txostenari atxiki zaio.

Horregatik guztiagatik, Euskera, Kultura eta Kirolen Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako udako jardueretan izena emateko kuoten prezio publikoen araudia onartzea, honen arabera.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen Zuzendaria ahaldundu akordio honetan aurreikusita ez dagoena ebazteko.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAO argitaratzea. Argitaratzen den egunetik bertatik izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria

JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO



ERANSKINA / ANEXO

2019an Araudia, Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako udako jardueretan izena emateko kuoten prezio publikoarena

Normativa de precio público de las cuotas de inscripción de las actividades de verano organizadas por el Instituto Foral de la Juventud en 2019

1. artikulua.- Zerga gaia

Artículo 1. Hecho imponible

Zerga gaia da Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako udako jardueretan izena ematea.

Constituye el hecho imponible la inscripción en las actividades de verano organizadas por el Instituto Foral de la Juventud.

2. artikulua.- Ordaintzera behartuak

Artículo 2. Sujetos obligados al pago

Jardueretan izena eman duten pertsona fisikoak edo haien guraso, tutore edo legezko ordezkariak daude ordaintzera behartuta.

Están obligados al pago las personas físicas inscritas en las actividades o sus padres, tutores o representantes legales.

3. artikulua.- Izena emate kuotak

Artículo 3. Cuotas de inscripción

Egitarduaren eta horren iraupenaren arabera da izen emate kuota.

Las cuotas de inscripción se establecen en función de los programas y la duración de los mismos:

UDALEKUAK

Txandak / Turnos Egunak / días	Kuota / Cuota	Kuota murriztua 1 (-%30 familia ugariak) Cuota reducida 1 (familias numerosas -30%)	Kuota murriztua 2 (-%60 gizarte laguntzak) Cuota reducida 2 (Ayudas sociales -60%)
7	125,00	87,00	50,00
10	182,00	127,00	73,00



GAZTE BIDAIAK

Txandak / Turnos Egunak / días	Kuota / Cuota	Kuota murriztua 1 (-%30 familia ugariak) Cuota reducida 1 (familias numerosas -30%)	Kuota murriztua 2 (-%60 gizarte laguntzak) Cuota reducida 2 (Ayudas sociales -60%)
7	203,00	142,00	81,00
10	289,00	202,00	117,00
11	320,00	224,00	128,00
12	350,00	245,00	140,00

ZINELEKUA

Txandak / Turnos Egunak / días	Kuota / Cuota	Kuota murriztua 1 (-%30 familia ugariak) Cuota reducida 1 (familias numerosas -30%)	Kuota murriztua 2 (-%60 gizarte laguntzak) Cuota reducida 2 (Ayudas sociales -60%)
12	350,00	245,00	140,00

4. artikulua.- Hobariak

a) Ehuneko 60ko hobaria, gizarte laguntza gisa, programa bakoitzaren kasuan kasuko kuotan. Laguntza hauek izango dituzte Gizarte Zerbitzuen gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL) diru sarrerak bermatzeko errenta (SBE) edo bestelako laguntzaren bat jasotzen dituzten familiek, beti ere, dagozkion frogagiriak aurkeztuta.

b) Programa bakoitzari dagokion kuotaren ehuneko 30eko hobaria, familia ugaria izateagatik. Eskaerari familia ugariaren indarreko titulua erantsi behar zaio, non laguntzaren eskatzailea agertuko den.

c) Hobariak ezin izango dira pilatu.

d) Hobari horiek lekua esleitzeko unean eta kuota ordaindu baino lehen eskatuko dira.

e) "Zinelekua" programan, hobariak bakarrik Araban erroldatutako pertsonen ezarriko dira.

Artículo 4. Bonificaciones

a) Bonificación del 60 por ciento de la cuota que corresponda a cada programa en concepto de Ayuda Social. Podrán optar a estas ayudas aquellas familias que perciban Ayudas de Emergencia Social, (AES), Renta de Garantía de Ingresos (RGI), u otro tipo de ayuda de los Servicios Sociales, siempre adjuntando la documentación probatoria pertinente.

b) Bonificación del 30 por ciento de la cuota que corresponda a cada programa en concepto de familia numerosa, adjuntando a la solicitud el título de familia numerosa, donde aparezca la persona solicitante de la ayuda.

c) Las bonificaciones no serán acumulables.

d) Las bonificaciones, deberán ser solicitadas en el momento de adjudicar la plaza, y siempre antes de efectuar el abono de la cuota.

e) En el caso del programa "Zinelekua", las bonificaciones se aplicarán solo a las personas empadronadas en Álava.



5. artikulua.- Sortzapena

Zernahi jardueratako plazaren esleipena jakinaraztean sortuko da kuota ordaintzeko beharra.

Artículo 5. Devengo

El precio se devengará en el momento de notificarse la adjudicación de la plaza en cualquiera de las actividades.

6. artikulua.- Ordaintzeko era

Esleipena baieztatutakoan ordainduko da; hain zuzen ere, horretarako gaitutako banku kontuan.

Artículo 6. Forma de pago

El pago se realizará una vez confirmada la adjudicación y será abonado en la cuenta bancaria habilitada al efecto.

7. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa

Prezio publiko hauen kudeaketa eta administrazioa Gazteriaren Foru Erakundearen, hots, Arabako Foru Aldundiko erakunde autonomoaren eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitakoaren, eginkizun dira.

Artículo 7. Gestión y administración

La gestión y administración de estos precios públicos corresponde al Instituto Foral de la Juventud, organismo autónomo de la Diputación Foral de Álava, adscrito al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.